

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

R 19/2011 Ebazpena 41/2008 espedientea

Gasteizen, 2011ko uztailaren 26an

Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada (lehendakaria) eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese (kideak) kidez osatuak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Galiziako Xuntak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean planteatutako eskumen gatazka automatikoari buruzkoa; (Izena eta abizenak 1) (NAN: ----) jaunaren heriotzak sorrarazitako Oinordetzen gaineko Zergaren ordainarazpenetarako eskumenaren inguruan; Arbitraje Batzordean izapidetzen da 41/2008 espediente zenbakiarekin.

1. AURREKARIAK

1. (Izena eta abizenak 1) jauna Vilamartin de Valdeorraseko (Ourense) eskualde ospitalean zendu zen 2004ko apirilaren 11n.

1996ko ekainaren 25ean Manuelek eta bere emazte (Izena eta abizenak 2) (NAN: ---) andreak AEATen Barco de Valdeorraseko (Ourense) administrazioan idatzi bat aurkeztu zuten, 27an izan zuena sarrera (espedientean Gipuzkoako Foru Aldundiaren alegazio idatziaren 2. eranskin gisa ageri da; alegazio idatziari aurrerago egingo zaio erreferentzia), honako hau adierazteko:

- 96-6-10era arte ezkontide biek zerga egoitza Villamartin de Valdeorrasen zuten (AAA kalea, nn).
- 96-6-10etik aurrera, zerga egoitza Zarautza aldatu dute (BBB kalea, mm).
- Adierazpen hori Zergei buruzko Lege Orokorraren 45.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako egiten da.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Adierazi behar da aipatutako idatziaren goiburuan aitortzaileek baieztatzen dutela beren egoitza AAA kaleko, ññ-n dutela, datu horrek auzi honetan eztabaida eragin baitu.

2. 2004ko uztailaren 26an, kausatzailearen emazte (Izena eta abizenak 2) andreak eta bien seme (Izena eta abizenak 3) jaunak Oinordetzen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuan; hala ageri da departamentu horren Zerga eta Politikako Zuzendaritza Nagusiaren Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuaren ziurtagirian; ziurtagiri hori espedientearen (orriak zenbakitu gabe ditu) gatazka planteatzeko idatziaren 2. dokumentu gisa erantsi da; idatzi horri ere aurrerago egingo zaio erreferentzia.

Aipatutako ziurtagirian adierazten da (Izena eta abizenak 1) jaunak ere aurkeztu dituela Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuan 1999tik 2004rako –biak barne– ekitaldietako PFEZaren aitortpena, bai eta 1999tik 2003rako –biak barne– Ondarearen gaineko Zergarenak ere.

Gatazka planteatzeko aipatutako idatziak aipatzen du zergadunek ziurtagiri hori eta zenbait aitortpenen fotokopiak aurkeztu dituztela, baina ez Oinordetzen gaineko Zergarena, nahiz eta hainbatetan eskatu dion Ikuskaritzak.

3. Galiziako Xuntak gatazka planteatzeko aurkeztutako idatzian baieztatzen du Oinordetzen gaineko Zerga Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari 2008ko ekainaren 9ko idatziaren bidez erreklamatu ziola eta ezezko erantzuna jaso zuela 2008ko abuztuaren 11n sarrera izan zuen idatziaren bidez.

4. 2008ko irailaren 9ko idatziaren bidez, Galiziako Xuntaren Ekonomia eta Ogasun Kontseilaritzako Tributuen Zuzendaritza Nagusiak gatazka hau planteatu zuen. Idatzi hori Arbitraje Batzordeari igorri zitzaion, Zergen zuzendari nagusiaren irailaren 11ko ofizioaren bidez; Correoseko zigiluan data bera ageri da eta Batzordean 2008ko irailaren 12an eman zitzaion sarrera erregistroan. Galiziako Xuntak, gatazka planteatzeko aurkeztutako idatzian, bere uzia babesteko alegazioak egin ondoren, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio Galiziako Autonomia Erkidegoaren eskumena aitortzeko -eztabaidaren xede den auzian esan nahi duela ulertzen da–.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

5. Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak egin zituen Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren 2008ko azaroaren 3ko idatziaren bidez; hurrengo egunean izan zuen sarrera Batzordean. Alegatutakoan oinarrituta, Foru Aldundiak Batzordeari eskatu zion (Izena eta abizenak 1) jaunaren herentziari dagokion Oinordetzen gaineko Zerga ordainarazteko eskumena aitortzeko.

6. Arauzko izapideak egin eta espedienteak alderdiei eta interesdunei helarazi ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundia, Galiziako Xunta eta (Izena eta abizenak 3) jaunaren ordezkaria agertu ziren. Lehenengoak, 2009ko ekainaren 11ko idatzian –12an erregistratu zen–, 2008ko azaroaren 3ko alegazioen idatzian adierazitako argudioak berresten ditu. Galiziako Xuntak alegazioak egin zituen 2009ko uztailaren 1eko idatziaren bidez –Batzordean hilaren 6an eman zitzaion sarrera– eta alegazio horien ondorio gisa baieztatzen du autonomia erkidego horren iritziz nahikoa frogatuta dagoela kausatzailearen eta horren ezkontidearen ohiko egoitza Galizian dagoela kausatzailea Vilamartin de Valdeorrasen (Ourense) zentzearen ondorioz sortutako Oinordetzen gaineko Zerga likidatzeko eskumenaren ondorioetarako.

(Izena eta abizenak 3) jaunak alegazioak egin zituen 2009ko ekainaren 15eko idatziaren bidez –Batzordean hilaren 17an erregistratu zen– eta, amaitzeko, Batzordeari eskatzen dio honako hau erabakitzeko:

Nagusiki, ez onartzea Galiziako Xuntak planteatutako eskumen gatazka Gipuzkoako Foru Aldundiari inhibizioa egiteko garaiz kanpo eskatzeagatik eta ez duelako egiaztatu gatazkaren planteamendua arauz ezarritako epean aurkeztu denik.

Aurreko eskaerekin batera, ez kontuan izatea Galiziako Xuntak historia klinikoaren inguruan aurkeztutako dokumentazioa, eta alderdi bakoitzak aurkeztutako gainerako frogak aztertu ondoren, erabakitzea Gipuzkoako Foru Aldundiak duela eskumena (Izena eta abizenak 1) jauna kausatzailearen Oinordetzen gaineko Zerga ordainarazteko, Zarautzen bizi zelako –BBB kaleko mm-an–, zendu aurreko urtean.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

1. Aurrez, (Izena eta abizenak 3) jaunak ez onartzearen alde aurkeztutako alegazioak aztertu behar dira.

Lehenengoan aipatzen du Galiziako Xuntak ez duela bete Gipuzkoako Foru Aldundiari inhibizioa eskatzeko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.1 artikuluan ezarritako epea. (Abizenak 3) jaunaren arabera, Galiziako Xuntak 2007ko urriaren 31n izan zuen bere ustez Ekonomia Itunean ezarritako lotura puntuak urratzen dituen egintzaren berri ((Izena eta abizenak 1) jaunaren Oinordetzen gaineko Zergaren autolikidazioa Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztea), data horretan entregatu baitzion (Abizenak 4) ordezkariak Galiziako Xuntaren Ikuskaritza Zerbitzuari Gipuzkoako Foru Aldundiak jaulkitako ziurtagiria, egiaztatzen duena Oinordetzen gaineko Zergaren autolikidazioa 2004ko uztailaren 26an aurkeztu zuela. (Abizenak 3) jaunak argudiatzen du, Arbitraje Batzordearen Araudia 2008ko urtarrilaren 17an sartu zenez indarrean, inhibizio eskaera beranduenez 2008ko otsailaren 28an egin behar zela edo, izatekotan, 2008ko martxoaren 17an, eta, ondorioz, 2008ko ekainaren 10ean egin zuenez, gatazka ezin dela onartu.

Ez gaude ados (Abizenak 3) jaunaren iritziarekin, autolikidazioa aurkeztea ez baita Ekonomia Ituna urra dezaketen ahalmena baliatzea suposatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren egintza. Gatazka formalizatzen duen sekuentziaren lehen egintza da Galiziako Xuntak Gipuzkoako Foru Ogasunari erreklamatzeko diola Zergaren errendimendua, alegia, 2008ko ekainaren 9ko autolikidazioaren arabera ordaindutako zenbatekoa, eta erreklamazio horrek ezezko erantzuna jaso zuen –2008ko abuztuaren 11n eman zitzaion sarrera–.

(Abizenak 3) jaunak aurkeztutako garaiz kanpokotasunaren inguruko bigarren alegazioa da Galiziako Xuntak ez duela bete gatazka planteatzeko Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.2 artikuluan ezarritako hilabeteko epea. Interesdun horrek argudiatzen du Xuntak aurkeztutako dokumentuekin ez dela egiaztatuta geratzen Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskumena berresteko idatzia Galiziako Xuntak 2008ko abuztuaren 11n jaso zuenik, hori egiaztatzeko Arbitraje Batzordeari igorri baitio Gipuzkoako Foru Aldundiaren berrespen idatzia, Galiziako Xuntaren sarrera erregistroko zigilua irakurri ezin dela eta, inola ere ezin dela egiaztatu hori. Jarraian, interesdunak alderaketa zabala egiten

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

du administrazio biek trukaturako hainbat dokumenturen sarrera eta irteera zigiluen irakurgarritasunaren inguruan eta hortik ondorioztatuko litzateke zigilu irakurtezin bakarra Foru Aldundiaren eskumena berresteko idatziaren Xuntako sarrerako zigilu hori soilik izango litzatekeela. Interesdunak bere alegazioa honela amaitzen du:

Horregatik guztiatik, eta Galiziako Xuntak Arbitraje Batzordeari frogatzen ez badio Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena berresteko idatzia 2008ko abuztuaren 11n jaso zuela eta lehenago, alderdi honen iritziz, Arbitraje Batzordeak ezin du gatazkaren planteamendua onartu, garaiz kanpo aurkeztu zelako aipaturako errege dekretuaren 13. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

Galiziako Xuntari faltsutasuna egozten dion alegazio hori ere ezin dugu onartu. Egia den arren Gipuzkoako Foru Aldundiaren idatziari Xuntako erregistroan jarri zioten zigilua ez dela behar bezain argia, arretaz aztertzen bada ikusten da data 2008ko abuztuaren 11 dela. Horren inguruko edozein zalantza argitu egiten da, planteamendu idatzian adierazten baita hori izan dela Foru Aldundiaren idatzia jaso den data eta Foru Aldundia ez delako aurka azaldu. Ez dagokio Xuntari data hori benetakoa dela frogatzearen karga, faltsua dela alegatzen duenari baizik, eta interesdunak ez du behar bezala frogatu, zantzu lausoak eman baititu.

3. Gatazkan sartuta bete-betean, horren xedea da zehaztea zein administrazioak duen eskumena (Izena eta abizenak 1) jauna 2004ko apirilaren 11n zendu izanak sorrarazitako Oinordetzen gaineko Zerga ordainarazteko.

2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Itunaren arau batzuk aplikatu behar dira gatazka hau ebazteko, zehazki, honako hauek:

25. artikulua. Aplikatu beharreko arauak eta Zergaren ordainarazpena.

Bat. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga itundutako tributua da eta araudi autonomoaren pean dago.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak ordainaraziko du zerga hori honako kasu hauetan:

a) «Mortis causa» eskuraketetan, eta bizitza-aseguruen onuradunek aseguruaren heriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, baldin eta sortzapenaren egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

(...)

Bi. Aurreko paragrafoko a) eta c) letretan jasotako kasuetan, foru-aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, kausatzaileak edo dohaintza-hartzaileak egoitza Euskadin eskuratu zunezik zerga ordaindu beharra sortu arte 5 urte baino gutxiago pasa badira. Autonomia Estatutuaren 7.2. artikulua araberak izaera politikoz euskaldunak izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori ezarriko.

43. artikulua. Ohiko bizilekua eta zerga-egoitza.

Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, Euskadin bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaren ezarraldiko egun gehien ematea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez; sortzapen egunaren bezperan amaitzen den urtebeteko egun gehien ematea, urtearen edozein egunetatik hasita zenbatuta, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari dagokienez.

Pertsona fisikoen ohiko bizilekua, gainerako tributuei dagokienez, dena delako tributuen sortzapen-egunean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoretarako duten ohiko egoitza bera izango da.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean —profesionala alde batera utzita— egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

(...)

4. Gatazka planteatzeko idatzian, Galiziak Xuntak mantentzen du (Izena eta abizenak 1) jaunaren ohiko egoitza, sortzapenaren datan, Galizian zegoela, eta baieztapen hori egiteko honako zantzu hauek hartzen ditu oinarri:

- Erroldatze lekua: Idatziari erantsi dio errolda ziurtagiria, non adierazten baita (Izena eta abizenak 1) jauna AAA kaleko, 51. zenbakian bizi zela, Vilamartin de Valdeorrasen (San Xurso, Ourense). Bertan, adierazten dira honako errolda aldaketa hauek ere: errolda berritzeagatik alta 1996-05-01ean, heriotzaren ondoriozko baja, 2004-04-11n.
- Osasun txartelaren titulartasuna: Kausatzailea Galiziako Osasun Zerbitzuaren osasun txartel baten titular zen eta ohiko helbide gisa Vilamartin de Valdeorraseko AAA kaleko 58. zenbakia adierazi zuen.
- Osasun historia: gatazka planteatzeko idatzian SERGASek igorritako txosten bateko informazioa ageri da, hain zuzen ere kausatzaileak tratamendua jaso zuela Galiziako hainbat osasun zentrotan 2003ko urtarrilaren 1etik 2004ko apirilaren 11ra.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Galiziako Osasun Zerbitzuaren (SERGAS) ziurtagiriaren arabera, kausatzaileak familia medikua Vilamartin de Valdeorrasen (Ourense) zuen zendu zen arte eta osasun txartelaren pentsiodun titular gisa ageri zen.

- Guardia Zibilaren ofizioa: Guardia Zibilaren A Ruako postuak, 2008ko martxoaren 13ko ofizioan, adierazten du (Izena eta abizenak 2) andreak, aipatutakoaren emazteak, jakinarazi ziela Zarauzko BBB kaleko mm-n eta Vilamartin de Valdeorraseko AAA kaleko 58. zenbakian bizi zela.
- NAN: Ezkontidearen NANan eta semearenean Vilamartin de Valdeorras ageri da egoitza gisa. Alargunaren NANA 01-10-25ean berritu zen eta ez zen ohiko egoitzaren helbidea aldatu.

Bestalde, zergadunek kausatzailearen ohiko egoitza Euskadin zegoela frogatzeko aurkeztutako ziurtagiri hauek aipatzen ditu Xuntak:

- Gipuzkoako Foru Ogasunaren ziurtagiria, administrazio horretan aurkeztutako PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenei eta Oinordetzen gaineko Zergaren autolikidazioari buruzkoa, aurrekarietan adierazi den moduan. Galiziako Xuntak adierazten du aitorten horietariko batzuen fotokopiak aurkeztu dituztela, baina ez Oinordetzen gaineko Zergarena, nahiz eta hainbatetan eskatu dion Ikuskaritzak.
- 1996ko ekainaren 7an eskritura publiko bidez Zarauzko BBB kaleko mm-ko higiezina eskuratzea. Jarraian, higiezin horretan egindako argi eta gas kontsumoak aztertzen dira idatzian.

Azkenik, Xuntaren idatzian alegatzen da kausatzailearen interes zentro nagusia Galiziako Autonomia Erkidegoa dela, han baitago bere ondare pertsonal eta enpresarial guztia, zerga egoitza han ezartzeko Zarautzen eskuratu zuen higiezin hori izan ezik. Jarraian, ondarea aztertzen du.

5. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta (Izena eta abizenak 3) jaunak Galiziako Xuntaren aurkako jarrera babesteko emandako argudioak aztertu aurretik, kontuan hartu behar dira

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

biek (Izena eta abizenak 1) jaunaren osasun historiatik ateratako zantzuen baliozkotasunaren inguruan egin dituzten alegazioak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2008ko azaroaren 3ko idatzian, alegatzen du SERGASek emandako kausatzailearen historia klinikoan –gatazka planteatzeko erantsitako dokumentazioan ageri da– 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzkoaren, 7-10. artikuluen arabera bereziki babestuak diren datu pertsonalak ageri direla.

Historia klinikoa igortzeko idatzian adierazten da Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzkoa Legearen 11.1 eta 11.2.d) artikuluen arabera ematen dela hori. Aipatutako lehen manua honako hau xedatzen du izaera pertsonaleko datuen inguruan: “hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du”; bigarrenak xedatzen du adostasun hori ez dela eman beharko komunikazioaren jasotzailea herri defentsaria, fiskaltza edo epaileak zein auzitegiak edo kontu auzitegia direnean, halakoek dituzten eginkizunak gauzatzean. Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du jasotzaile horien artean ez dagoela Galiziako Xuntaren Ekonomia eta Ogasun Kontseilaritza.

Amaitzeko, Foru Aldundiak adierazten du Galiziako Ogasunari emandako informazioak kausatzailearen eta haren oinordekoen intimitaterako eskubidea urratzen badu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 80.1 artikuluan eta Prozedura Zibilaren Legearen 287. artikuluan xedatutakoa aplikatu beharko dela. Orain ez dugu aztertuko esparru horretan aipatutako bigarren manua aplikatzekoa den, baina zalantzarik gabe, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluen arabera, lehena aplikatzekoa da inolako zalantzarik gabe eta, horren arabera, “Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke prozedura ebazteko garrantzizko diren egitateak.” Eta argi dago Zuzenbidean ez dela onargarria oinarrizko eskubide bat urratuta lortu den frogia.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

(Izena eta abizenak 3) jaunaren ordezkariak, Konstituzio Auzitegiak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak intimitaterako eskubidearen inguruan emandako jurisprudentzia ugari aipatu ondoren, Galiziako Autonomia Erkidegoaren 2001eko maiatzaren 28ko 3/2001 Legearen, Pazienteen baimen informatuari eta historia klinikoari buruzkoaren –2005eko martxoaren 7ko 3/2005 Legeak emandako idazketan–, 19. artikulua kopiatzen du, historia klinikoa eskuratzeari dagokionez, eta bestelako azterketarik egin gabe baieztatzen du lege horretatik ondoriozta daitekeela Galiziako Xuntak kausatzailearen historia klinikoa haren, eta, ondorioz, haren oinordekoen, intimitaterako eskubidearen urratze ez legitimo gisa hartu behar dela, Konstituzioaren 18.1 artikuluan jasotakoaren arabera.

Interesdunak gaineratzen du urratze ez legitimoaz gain gehiegizkoa dela, helburu bera lortzeko neurri ez hain kaltegarriak bazirelako. Horren inguruan, bere ustez, Galiziako Xuntak, kausatzailearen historia klinikoa eskatu beharrian, kausatzaileak Galiziako Osasun Zerbitzuari (Sergas) atxikitako ospitale edo osasun zentroetan arreta jaso zuen edo ospitaleratuta egon zen egunetako informazioa eskura zezakeen, familia medikuari eta osasun txartelari buruzko datuak eskuratu zituen moduan. Horregatik, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio espediente hau bertan ageri diren elementu guztiekin ebazteko eta ez kontuan hartzeko medikuaren txostenak eta horiei buruzko datuak dituzten gainerako dokumentuak, kausatzailearen eta haren oinordekoen intimitaterako eskubidea urratzen dutelako, hain zuzen ere Konstituzioaren 18.1 artikuluan aurreikusten den eskubidea.

2009ko uztailaren 1eko alegazio idatzian, Galiziako Xuntak babesten du SERGASen igorpen idatziak akatsez Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko Legearen 11.2.d) artikulua aipatzen zuela 11.2.a) beharrian; horren arabera, datuak jakinarazi daitezke interesdunaren baimenik gabe, “legeak baimentzen duenean lagapena”. Baimen hori, kasu honetan, Zergei buruzko Lege Orokorraren 94. artikuluan dago, 1. atalean honako hau agintzen baitu (jatorrizko gaztelaniazkoan):

"[I]as autoridades, cualquiera que sea su naturaleza, los titulares de los órganos del Estado, de las comunidades autónomas y de las entidades locales; los organismos autónomos y las entidades públicas empresariales; las cámaras y corporaciones,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

colegios y asociaciones profesionales; las mutualidades de previsión social; las demás entidades públicas, incluidas las gestoras de la Seguridad Social y quienes, en general, ejerzan funciones públicas, estarán obligados a suministrar a la Administración tributaria cuantos datos, informes y antecedentes con trascendencia tributaria recabe ésta mediante disposiciones de carácter general o a través de requerimientos concretos, y a prestarle, a ella y a sus agentes, apoyo, concurso, auxilio y protección para el ejercicio de sus funciones".

Bestalde, artikuluko beraren 5. atalak honako hau xedatzen du:

"[I]a cesión de datos de carácter personal que se deba efectuar a la Administración tributaria conforme a lo dispuesto en el artículo anterior, en los apartados anteriores de este artículo o en otra norma de rango legal, no requerirá el consentimiento del afectado. En este ámbito no será de aplicación lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 21 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal".

Arrazoa eman behar diegu Gipuzkoako Foru Aldundiari eta (Izena eta abizenak 3) jaunari. Xuntak, 2009ko uztailaren 1eko idatzian, baieztatzen du, Ogasun Kontseilariak SERGASi zuzendutako informazio eskaeraren arabera, hark zerrenda bat igorri ziela adieraziz kausatzailea zein egunetan egon zen Galizian ospitaleratuta (24 egun zendu aurreko urteari dagozkio). Espedientean ez da ageri errekerimendu hori, baina bai SERGASen igorpen ofizioa; bertan, gaztelaniara itzulita, adierazten da Ikuskaritza Zerbitzuak eskatutakoaren arabera, (Izena eta abizenak 1) jaunaren (Gizarte segurantzako zk.:----) historia klinikoaren kopia eransten dela; igorpen hori 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzkoaren, 11.1 eta 11.2.d) artikuluen ondorioetarako burutzen da eta lege horren 7 eta 10. artikuluek zehaztutakoaren arabera bereziki babestuta dauden datuak jaso dira.

Espedientean kausatzailearen historia kliniko osoa ageri da eta horrek agerian jartzen du hori jakinaraztea pertsona horren intimitaterako eskubidearen urraketa larria dela.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Espedientean badago Valdeorraseko eskualde ospitalearen dokumentu bat, (Izena eta abizenak 1) jaunaren episodiei buruzkoa. Dokumentu horretan arretaren edo egonaldia data eta osasun zentroaz gain, adierazten da pazienteak zer gaixotasun zituen eta zer proba egin zitzaizkion, eta datu horiek inolako zalantzarik gabe intimitaterako eskubideak babesten ditu.

Halaber, espedientean kausatzailearen osasun historiari buruzko txosten bat dago, Galiziako Xuntaren Ekonomia eta Ogasun Kontseilaritzaren Ikuskaritza Zerbitzuak egindakoa; bertan, kausatzaileak heriotzaren aurreko urtean izan zituen ospitaleratze egunak laburtzen dira eta gaineratzen da hori egiteko kausatzailearen historia guztia aztertu dela. Alegia, Xuntaren Ikuskaritzaren ondorioak kausatzailearen osasun historia inolako mugarik gabe aztertzean oinarritzen dira.

Nahiz eta kausatzaileak Galiziako osasun zentroetan arreta zein egunetan jaso zuen jakiteak zerga arlorako garrantzia baduen, ohiko egoitza non duen zehazteko, bistakoa da, Arbitraje Batzordearen iritziz, zerga administrazioaren, kasu honetan Galiziako Xuntaren, ahalak intimitaterako eskubidearen muga duela eta zergadunen historia klinikoa eskubide horren babes nukleoaren parte dela. Eskubide horren helburu nagusia ez da fitxategiaren edo datuen tratamenduaren arduraduna (Izaera Pertsonaleko Datuei buruzko Legearen 3.d) art.) –SERGAS kasu honetan– jakinarazteko errekerimendu baten aurrean babestea, beste edozeren gainera, eskubidearen titularra eta, hedapenez, haren oinordekoak babestea baizik. Zergei buruzko Lege Orokorraren 94.5 artikulua ezartzen du ukitutakoaren baimena behar izateko salbuespenak ez duela eragiten datuak jakinarazteko muga guztiak kentzen direnik.

Arlo honetan, kontuan izan behar da Datuak Babesteko legearen 8. artikulua, osasun arloko izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzkoa; Estatuko edo autonomia erkidegoko osasun legerian ezarritakora igortzen du. Estatu mailan, legeria hori 2002ko azaroaren 14ko 41/2002 Legeak, Pazientearen Autonomiari eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoren Arloko Eskubide eta Betebeharrei dagokienak, osatzen du eta, 18. artikuluan, historia klinikorako sarbide eskubideei buruzkoan, honako hau xedatzen du (jatorrizko gaztelaniazkoan):

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

"Los centros sanitarios y los facultativos de ejercicio individual sólo facilitarán el acceso a la historia clínica de los pacientes fallecidos a las personas vinculadas a él, por razones familiares o de hecho, salvo que el fallecido lo hubiese prohibido expresamente y así se acredite. En cualquier caso el acceso de un tercero a la historia clínica motivado por un riesgo para su salud se limitará a los datos pertinentes. No se facilitará información que afecte a la intimidad del fallecido ni a las anotaciones subjetivas de los profesionales, ni que perjudique a terceros".

Arbitraje Batzordeak arlo honetan duen iritzia Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2009ko urriaren 30eko epaian –96/2008 erre.– babesten da; epai horrek baietsi egiten du interbentzio kirurgikoetan parte hartu duten anestesistei buruzko datuak emateko errekerimendu baten aurkako errekurtsioa, eta honako hau ezartzen zuen (jatorrizkoa gaztelaniaz):

"la captación de datos se realizará por personal de la Inspección, mediante el examen de los documentos originales obrantes en los sobres donde se introduce la documentación clínica de los pacientes, debiendo ser puesta a disposición de la Inspección las historias clínicas originales de los pacientes, a que se refiere el correo de 28-1-2005 y anexo 11 a la diligencia 21, la totalidad de las restantes historias clínicas originales de los pacientes, en los regímenes de hospitalización y ambulatorio, años 2000 y 2001, al objeto de que la Administración pueda proceder a una comprobación muestral de lo alegado por la entidad. En todo caso se adoptarán las medidas que sean necesarias en orden a preservar la intimidad de los pacientes".

Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiak onartzen du informazio horrek zerga arlorako ez duela garrantzirik, baina bere ustez historia klinikoetarako sarbidea izateak pazienteen intimitaterako eskubidea urratzen du eta, Datuak babesteko Legea, Valentziako Generalitatearen 2003ko urtarrilaren 28ko 1/2008 Legea, pazientearen eskubideei eta informazioari buruzkoa, eta 2002ko azaroaren 14ko 41/2002 Legea aipatu ondoren, honako hau baieztatzen du (jatorrizkoa gaztelaniaz):

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptua
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

"En el presente caso, aunque la finalidad del requerimiento no es tomar conocimiento de los datos referentes a la salud del paciente, sino de los profesionales que le han asistido (Anestesistas). Lo cierto es que se exige la puesta disposición de la Administración de las Historias Clínicas de los pacientes, que contienen datos sobre su salud, a los que solo se puede acceder cuando lo disponga una Ley, con el consentimiento del afectado, o con autorización judicial; supuestos que no se dan en el presente caso".

(Izena eta abizenak 3) jaunak baieztatzen duen moduan, nahikoa zen Galiziako Xuntaren Zerga Administrazioak SERGASi zerga arlorako garrantzitsua den informazio soilik eskatzea, alegia, kausatzaileak aipatutako aldian Galiziako zentroetan zenbat egunetan jaso zuen arreta; baina ez zuen hala egin, zerbitzu horri eskatu zion kausatzailearen historia klinikoaren kopia igortzeko, horrela haren intimitaterako eskubidea urratuta –haren oinordekoei dagokie hori baliatzea–.

Azken batean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta (Izena eta abizenak 3) jaunaren iritzia onartuta, gatazka hau ebazteko ez dira kontuan hartuko kausatzailearen historia klinikoko datuak.

6. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, Zergei buruzko Lege Orokorraren 48. artikulutik eta 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergenaren, artikulua beretik *iuris tantum* presuntzio bat ondorioztatzen da, zergadunak zerga egoitza gisa aitortutako lekua bere ohiko egoitza denaren ingurukoa. Kasu honetan, aitorpen hori Gipuzkoako Foru Ogasunari 1999tik 2004ra eta 1999tik 2003ra aurkeztutako PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenetan dago, bai eta kausatzailearen heriotzaren ondoren sorrarazitako Oinordetzen gaineko Zergaren autolikidazioan ere.

Galiziako Xuntak emandako zantzuei dagokienez –historia klinikokoak alde batera utzita–, Gipuzkoako Foru Aldundiak honako hau alegatzen du:

- Errolda ziurtagiria “iuris tantum” presuntzio bat besterik ez da eta aurkakoa frogatuta suntsi daiteke.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoaren egoitza eta bizilekua

- Halaber, 2005eko abenduaren 23ko 1553/2005 Errege Dekretuak, NANA egiteko arauak ezartzen dituenak, nortasun agiriko helbidea errolda ziurtagiriaren arabera ezartzen du.
- Gauza bera gertatzen da osasun txartelarekin; hori errolda ziurtagiriarekin lotzea Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan ageri den egoitzaren errealitatearen aurkako frogara gisa hartzen du. Foru Aldundiak esaten du kontuan izanda beharrezkoa dela Galiziako udalerririk batean erroldatuta egotea Sergasen osasun txartela izateko eta, ondorioz, Galiziako Autonomia Erkidegoan osasun laguntza jasotzeko, eta oinarri hartuta mediku-paziente harremanaren oinarria konfiantza dela, are gehiago adineko pertsonak badira, kasu honetan bezala, bidezkoa izango litzatekeela pentsatzea kausatzaileak errolda Galizian mantentzearen helburua izan zela egoitza Gipuzkoara aldatu zuen arte zituen mediku berak mantentzea, errolda aldatzeak Galiziako osasun txartelik ezin eduki izatea eragingo ziolako, osasun txartela arautzen duen 177/1995 Dekretuaren 1. artikulua arabera. Bestela esanda, erroldan kausatzailearen egoitza gisa ageri zena faltsua da, erroldaren helburu bakarra baitzen osasun txartela izateko aukera ematea kausatzaileari.
- Guardia Zibilaren ofizioari dagokionez, bere ustez, kausatzailearen ezkontideak Gipuzkoan nahiz Ourense bizi zela adierazteak ez du desbirtuatzeko egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan duenaren presuntzioa.
- Zarauzko higiezinako gas eta elektrizitate kontsumoari dagokionez, Xuntak erabili duen gutxieneko terminoa eztabaidatzen du eta adierazten du Ekonomia Ituneko ohiko etxebizitzaren kontzeptuak zerga sorrarazi denaren aurreko urtean lurralde horretan egun gehiago egotea soilik eskatzen duela, eta, azkenik, alegatzen du Xuntak ez duela aurkeztu zerga sorrarazi zenean kausatzailearen egoitza gisa aitortu nahi duen higiezinako ur eta argi kontsumoen egiaztagirik.

7. (Izena eta abizenak 3) jaunak kausatzailearen ohiko etxebizitzaren inguruko alegazioak egiten ditu eta honela laburtu dira:

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoaren egoitza eta bizilekua

- Errolda ziurtagiriari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren argudio berak erabiltzen ditu: kausatzaileak ez zuen errolda Zarautza aldatu arrazoi jakin batengatik, Galiziako Osasun Zerbitzuan (SERGAS) osasun arreta jasotzen jarraitu ahal izateko. Kausatzaileak, egoitza Zarautza aldatu zuenean, 73 urte zituen eta ez zuen osasun ona, eta Valdeorraseko ospitaleko medikuek tratatzen zuten. Adinekoa izan eta osasun txarra izateaz gain, bere seme bakarra O Barco de Valdeorrasen (Ourense) bizi zen eta egoitza hori mantendu zuen bere aitaren heriotzara arte, eta horren guztiaren ondorioz, etorkizunean haren osasun egoera larritzen bazen eta ospitaleratu egin behar bazuten –gero gertatu zen moduan–, komeni zen Valdeorraseko ospitaleko medikuek tratatzea. Arrazoi horregatik ez zen kausatzailea Zarautzen erroldatu, eta adierazitako guztiagatik guztiz ulergarria da.
- Alegazio bera errepikatzen du SERGASen osasun txartelaren inguruan: Kausatzaileak eta ezkontideak Zarautza aldatu zuten egoitza 1996an, kausatzaileak 73 urte zituela. Bere seme bakarra Galizian bizi zenez, zehazki O Barco de Valdeorrasen (Ourense), kausatzaileak erabaki zuen bere osasun txarteleko helbidea ez aldatzea, gaixotzen bazen Valdeorraseko ospitalean arreta jasotzen jarraitu ahal izateko, ordura arte ospitale horretako medikuek tratatu zutelako, bere gaixotasuna ezagutzen zutelako eta bera nahiz bere emaztea semeak ondo zaindu ahal izateko, gero gertatu zen moduan.

Interesdunak, puntu horretan, adierazten du ez dagoela ados Vilamartin de Valdeorraseko AAA kaleko zenbakiarekin; osasun txartelean adierazten da pp dela eta errolda ziuragirian qq, nahiz eta ez duen inolako ondorioz ateratzen hortik. Bitxia da, AEATen egoitza aldatzeko 1996ko ekainaren 25ean egindako aitorpenean nn zenbakia adierazten da eta kausatzailearen emazte (Izena eta abizenak 2) andrearen NANan kale bera ageri da egoitza gisa, zenbakirik gabe.

- Guardia Zibilaren ofizioari dagokionez, kausatzailearen emazteak adierazi zuen bere senarra Vilamartin de Valdeorrasen eta Zarautzen bizi zela, azken urtean zenbaitetan Galiziarra joan zelako, nagusiki osasun arrazoiengatik.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

- Kausatzailearen ezkontidearen eta semearen NANetan ageri den egoitzari dagokionez, baieztatzen du datu hori batzordeak ezin duela kontuan hartu, hainbat dokumentutan ez datorrelako bat kalearen zenbakia.
- Zarauzko higiezinako argi eta gas kontsumoei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gogoetak berresten ditu.

8. 2009ko uztailaren 1eko idatzian, Galiziako Xuntak honako gogoeta hauek egiten ditu kausatzailearen ohiko egoitzako lekuari buruzko zantzuen inguruan:

- Errolda ziurtagiria: Xuntak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen manuak gogoratzen ditu, alegia, Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar duela bere burua. Udalerrri bat baino gehiagotan bizi dena urtean denborarik gehien egiten duen horretan bakarrik inskribatu beharko da (15. art.). Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira (16.1 art.).
- NANa eta osasun txartela: Adierazten du kausatzailearen ezkontidearen eta semearen NANetan Vilamartin de Valdeorras ageri dela egoitza gisa. Kausatzailearen NANa ez zuen aurkeztu Xuntak, nahiz eta eskatu zitzaion. Kausatzailearen ezkontideak NANa 2001eko urriaren 25ean berri zuten, zerga egoitza aldatu ondoren, eta helbide bera mantendu zuten, nahiz eta, aldaketa gertatu balitz, adierazi egin beharko lukeen.
- Osasun txartelari dagokionez, Xuntak baieztatzen du Galiziako Autonomia Erkidegoak txartel hori izateko ezartzen duen baldintzarik garrantzitsuena Galizian bizitzea dela, osasun laguntza Galiziako Xuntaren bitartez finantzatzen delako. Gaineratzen du, kausatzaileak eta haren ezkontideak ohiko egoitza Galiziako Autonomia Erkidegoan aitortzen dutela beste instantzia batean (Galiziako Osasun Zerbitzua), eta, ondorioz, osasun laguntza erkidego horretan jasotzen dutela, kausatzaileak heriotzara arte eta haren ezkontideak orain arte.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Galizian erroldatuta egotearen eta osasun txartela izatearen argudioaren azalpena da mediku berak izaten jarraitu nahi zutela eta Xuntak, honako ohar hau egiten du horren inguruan:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren alegazio idatzian egindako arrazoiketaren arabera, bidezkoagoa dirudi pentsatzea adineko eta osasun ahuleko pertsona horiek ez zutela medikuz aldatu nahi eta bizi diren lekuan modu iraunkorrean esleitutako profesional bat eduki nahi zutela, 500 km baino gehiago ez egin behar izateko medikuari kontsulta egin nahi dion bakoitzean. Administrazio honen iritziz egoera hori berresten dute Galiziako Osasun Zerbitzuari osasun txartelaz eta mediku horretaz baliatzeko Vilamartin de Valdeorraseko helbidea adieraztearen inguruan egindako adierazpenek (berriz ere Zergei buruzko Lege Orokorraren 108.2 artikuluan ezarritako irizpidea baliatzen dugu).

- Guardia Zibilaren ofizioa: Galiziako Xuntak adierazten du zergadunak berak (ustez Zarautzen bizi zen) egin ziola harrera Guardia Zibilari.
- Elektrizitate eta gas kontsumoak: Xuntak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren alegazio idatziari erantsi zitzaion kontsumoei buruzko dokumentuaren inguruan hainbat kritika egiteaz gain, adierazten du onartu arren ez direla gutxieneko kontsumoak, horrek ez duela nahitaez adierazten kausatzailea zenbat egunetan bizi izan zen higiezin horretan heriotzaren aurreko urtean (hori izan behar da kontuan lotura puntua zehazteko). Are gehiago, idatzian bertan aitortzen da berariaz kausatzailea Galizian egoten dela, adierazten baita fakturazioa baxua dela Galizian ospitaleratuta egon zen egunetan. Edonola ere, hilabeteren batean kontsumoa altua izateak ez du nahitaez esan nahi higiezin horretan zeuden pertsonak kausatzailea eta haren ezkontidea zirenik, ez eta benetan norbait bizi zenik ere, idatzian bertan berariaz aitortzen baita ez dakitela zer potentzia eta elektrizitate ekipamendu dagoen instalatuta higiezinan.

9. Gatazka honetako alderdiek eta interesdunak alegatutako zantzuak azaldu ondoren, erabaki behar da kausatzailearen ohiko egoitza non dagoen zehatz daitezkeen Ekonomia

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Itunaren 43.Bat artikuluan ezarritako lehen arauaren bidez, alegia, gatazkako bi autonomia erkidegoetariko batean bestean baino egun gehiago emateagatik, sortzapenaren aurreko eguna hartuta epearen amaiera gisa; kasu honetan, 2003ko apirilaren 11tik 2004ko apirilaren 10erakoa izango da epea.

Pertsona bat leku jakin batean egotea egitatea materiala da, askotan zuzenean frogatu ezin dena, gatazka honetan bezalaxe. Zantzu edo presuntzioen bidez frogatu beharko da eta horien balorazio estandarra Zergei buruzko Lege Orokorraren 108.2 artikuluan ezartzen da (gaztelaniazko jatorrizkoa): "Para que las presunciones no establecidas por las normas sean admisibles como medio de prueba, es indispensable que entre el hecho demostrado y aquel que se trate de deducir haya un enlace preciso y directo según las reglas del criterio humano". Estandar bera ezartzen da Prozedura Zibilaren Legearen 386.1 artikuluan.

Galiziako Autonomia Erkidegoko lurraldean egoten dela frogatzeko zantzuak, nagusiki, honako hauek dira: kausatzailearen Vilamartin de Valdeorraseko (Ourense) errolda ziurtagiria, SERGASeko osasun txartel baten titular izatea, helbidea udalerrri horretan adierazita, eta kausatzailearen emaztearen eta bien semearen NANetan helbide bera azaltzea. Zuzenbideko Bosgarren Oinarrian adierazitako arrazoiengatik, ezetsi egin dugu kausatzailearen osasun historiatik ateratako frogak. Zantzu balio txikiagoa dute Guardia Zibilak jasotako adierazpenek eta Zarauzko higiezinako elektrizitate eta gas kontsumoek.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiaren tesiaren argudio nagusia da kausatzaileak egoitza aldaketa aitortu zuela AEATen eta zerga aitortpenak Foru Ogasunean aurkeztu zituela, kausatzailearen heriotzaren ondorioz sortutako Oinordetzen gaineko Zerga barne.

Argi dago kausatzailearen erroldak nahiz SERGASen osasun txartelak ez direla kausatzaileak ohiko egoitza Galizian duenaren presuntzioak. Kausatzailearen ezkontidearen eta semearen NANetan ageri den egoitzak frogak indar txikiagoa du, nahiz eta kausatzailearen NANA ez emateak pentsarazten duen han ere helbide bera ageri zela. Oro har, kausatzailea Galizian bizi zenaren aurkako tesia ere ez du laguntzen kausatzailearen ezkontidea eta semea Xuntaren Ogasunarekin lankidetzan ez jardun

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

izanak; horrek eragin zuen lehenengoaren aurka zehapen espedientea hastea, alegazioen bigarren idatzian adierazten den moduan; horrekin batera doa Galiziako Xuntaren Ikuskaritza Zerbitzuaren 2008ko ekainaren 3ko erabakiaren kopia (8. dok.).

Ez dio zantzu indarririk kentzen errolda ziurtagiriari eta osasun txartelaren titulartasunari Foru Aldundiak eta (Izena eta abizenak 3) jaunak ematen duten justifikazioak, alegia kausatzaileak biak Vilamartin de Valdeorrasen (Ourense) mantendu zituela ordura arte tratatu zuten mediku berekin jarraitzeko, mediku-paziente harremanaren ondorioz, eta adinekoa zelako eta osasun egoera txarrean zegoelako. Asmo legitimo horrek ez du justifikatzen aipatutako dokumentuetan datu faltsuak adierazi izana, alegia, kausatzailearen egoitza, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta (Abizenak 3) jaunak alegatzen duten moduan, Gipuzkoan dagoela adierazi izana; asmo hori legitimoki mantendu ahal izango litzateke egoitza Galizian mantenduta. Ondorioz, Xuntak arrazoitzen duen moduan, argudio hori mantendu nahi den tesiaren aurka bihurtzen da, kausatzailearen benetako egoitza arreta jaso nahi zuen osasun zentrotik gertu zegoelako eta ez urrutiko leku batean. Kausatzaileak egoitza benetan Zarautza aldatu izan balu, logikoa izango litzateke Euskal Osasun Zerbitzuko (Osakidetza) medikuekin konfiantza harremana ezarri izatea; horretarako denbora izan baitzuen 1996tik 2004ra, bere aitorenaren arabera, kausatzaileak orduan eraman baitzuen bere egoitza Zarautza.

Hala eta guztiz ere, presuntzio bidezko frogen estandarra zorrotz aplikatuta, eta kontuan izanda Ekonomia Itunaren 43.Bat.Lehenengoa artikuluan ezarritako egoitza irizpidearen izaera objektiboa eta materiala dela, Batzordearen ustez erroldatik eta osasun txartelaren titulartasunetik ezin da zalantzarik gabe ondorioztatu kausatzaileak egun gehiago pasatzen zituen autonomia erkidego batean beste baino.

Zorroztasun hori babesten du Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren 2008ko apirilaren 2ko epaiak –5371/2002 erre.–; eztabaida zen Oinordetzen gaineko Zerga likidatzeko eskumena Nafarroako Foru Erkidegoak ala Estatuak zuen. Zuzenbideko Zazpigarren

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoaren egoitza eta bizilekua

Oinarriak presuntzioen frogaren inguruko doktrina jurisprudentziala azaltzen du hasieran eta, ondoren, kasaziorako arrazoia aztertzen du, alegia froga aztertzerakoan akatsa egin dela. Instantzia horren sententziak ondorioztatu zuen kausatzailea ez zela Nafarroan bizi, kausatzailea Iruñean erroldatzeko egintzaren froga balioa desbirtuatzen zuten presuntzioak oinarri hartuta. Auzitegi Gorenak adierazten du udal bateko erroldan inskribatzea ezin dela ohiko egoitzaren zalantzarik gabeko froga gisa hartu; jurisprudentziak hainbatetan baloratu du udal erroldako ziurtagirien froga eraginkortasuna eta, nahiz eta bere garaian nahikotzat jo zen udaleko idazkariak erroldaren inguruan emandako ziurtagiria, azkenean, doktrinak ukatu egin zuen erroldak froga balio osoa zuenik, eta zantzu mailara jaitsi zuen, egoitzaren izaera faktikoa gerta daitekeelako ez bat etortzea erroldako inskripzioarekin. Kasu honetan, espedientean dagoen ziurtagiriak adierazten du kausatzailea errolda horretan inskribatuta zegoela (... kaleko ... zenbakia-1. zenbakia), baina ez du izaera berezirik beste egoera edo elementu batzuk aurkakoa esaten badute; kontuan izan behar da ohikoa dela errealitatea eta erregistroa ez bat etortzea, erregistroak beti ez baitu errealitatea zuzen erregistratzen.

Sala horrek hau gaineratzen du: Bestalde, ohiko egoitzaren lekua zehazteko bereziki kontuan hartu beharreko elementua da, 1982ko martxoaren 28ko 83/1982/EE Zuzentarauaren 7. artikulua arabera, zehaztea zein lekutan duen ohiko egoitza urte zibileko epean, pertsona horren eta bizi den lekuaren artean lotura estua dagoela adierazten duten lotura pertsonalen bitartez, ohiko egoitzatzat jotzen baita norbanakoak bere interes pertsonalen zentrotzat duena, eta bereziki bere interes ekonomikoak dituen, nahiz eta, ondorio horietarako, ez den nahikoa izango leku jakin batean egotea fisikoki. Eta kasu honetan, zerga kudeatzen duen atalak adierazten zuen moduan, hildakoak utzitako ondasunetatik ondorioztatzen da Tomás jaunaren zentro ekonomiko eta soziala, zendu zen arte, Sevillan zegoela eta ez Nafarroan. Horrela, bada, inbentarioaren zatirik handiena Sevillako finantza entitateetan utzitako balioak dira; inbentariatuak ondasunetatik Nafarroan dagoen garrantzitsuena ... kaleko higiezia da, bere alaba zaharraren eta haren ezkontide eta seme-alaben bizileku dena; balioen artean daude Nafarroatik kanpo duen ondare familiar higiezin ia guztiaren titular den José M. De la Cámara S.A. sozietateko akzioak; zendu zen arte Sevillako Macarenaren Ermandadeko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

anai nagusiaren kargua izan zuen eta horrek adierazten du Sevillarekin lotura pertsonal eta soziala izan zuela, nahiz eta horrek ez duen eragozten 1987an elkarte horren estatutuak aldatu zirela anai nagusia hiri horretan bizitzeko betebeharretik salbuesteko; familiaren otoiztegia eta panteoia Sevillan daude; Sevillan zendu zen eta eskela guztiak, Iruñekoa izan ezik, Sevillan argitaratu ziren.

Garrantzitsua da adieraztea 1990eko abenduaren 26ko 28/1996 Legeak onartutako Nafarroaren Hitzarmeneko 8. artikulua, 26.2 artikulua igorpenarekin, jatorrizko idazketan xedatzen zuena Auzitegi Gorenaren epai horretako egitatei ere aplikatu behar zaiela; honako hau dio artikulua horrek (jatorrizkoa gaztelaniaz):

2. Se entenderá que las personas físicas tienen su residencia habitual en Navarra cuando permanezcan en su territorio por más de 183 días durante el año natural. En los supuestos en los que el período impositivo no coincida con el año natural, se considerará que se cumple tal condición cuando la permanencia en Navarra exceda de la mitad del citado período impositivo.

3. Cuando las personas físicas constituyan una unidad familiar y no opten por la tributación individual, corresponderá a Navarra la exacción del impuesto cuando residan en territorio navarro el cónyuge varón, el padre o la madre si no existiera matrimonio o hubiese separación judicial o, en defecto de los mismos, todos los miembros de la unidad familiar.

2003ko uztailaren 15eko 25/2003 Legeak Hitzarmenean egindako aldaketaren ondorioz, 8. artikulua Ekonomia Itunaren 43. Bat artikulua antzeko egitura hartzen du, egoitza irizpide desberdin gisa hartzen dira lurraldean egotea eta interes zentro nagusiaren kokalekua. Horrek azaltzen du Auzitegi Gorenaren aipatutako epaian interes pertsonal eta ekonomikoen zentroa dagoen lekua lurralde batean egotearen zantzu gisa hartu izana. Ekonomia Itunaren manu horren egituraren ondorioz, beharrezkoa da zentro hori eta lurraldean egotea irizpide desberdin gisa hartzea.

Presuntzioak baloratzeko estandar bera erabilita, argi dago ezin zaiola frogatu balio nahikorik eman Gipuzkoako Foru Aldundiak alegatutako zantzuei ere.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Hori dela eta, ondorioztatu behar da kasu honetan kausatzailearen ohiko egoitza ezin dela zehaztu Ekonomia Itunaren 43.Bat artikuluan ezarritako lehen araua aplikatuta.

10. Ekonomia Itunaren 43.Bat artikulua bigarren arauak ezartzen du ohiko egoitza pertsonak bere interes zentroa duen lekua izango dela eta hau zehazten du: “leku hori zein den jakiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean —profesionala alde batera utzita— egotzitako oinarriak ere”.

Gatazka planteatzeko idatzian, Galiziako Xuntak alegatzen du kausatzailearen ondare pertsonal eta enpresarial guztia Galiziako Autonomia Erkidegoan zegoela zerga sorrarazi zenean; salbuespen bakarra Zarautzen eskuratutako higiezinak zela eta zerga egoitza han ezartzeko helburuarekin eskuratu zutela. Jarraian, ondare hori zein elementuk osatzen duen adierazten du; hemen laburtu da:

- Ondasun higiezinak: Espedientean ageri diren Katastroaren Lurralde Kudeatzailetzaren datuen arabera, kausatzaileak hainbat higiezin zituen Galiziako Autonomia Erkidegoan (Ourense eta Lugo), Euskadiko higiezinaz gain.
- Sozietateetako partaidetzak: Kausatzailea hiru sozietateren administratzaile gisa ageri da:
 - o Sozietatea 1, S.A. (A----)
 - o Sozietatea 3, S.L. (B----)
 - o Sozietatea 3, S.L. (B----)

Kausatzaileak Sozietatea 1, S.A. sozietatearen 1.000 akzio zituen.

Hiru sozietateek Ourense dute egoitza eta han burutzen dute jarduera ere.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Persona fisikoen egoitza eta bizilekua

- Bankuko gordailuak: Aipatutako idatzian bederatzi banku kontu aipatzen dira; horietatik zortzi Barco de Valdeorraseko bankuan zabaldua daude, bat Vilamartin de Valdeorrasen eta bat Zarautzen.

11. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008ko azaroaren 3ko idatzian argudiatzen du, alde batetik, Xuntak zerrendatutako ondare elementu gehienak kapital higiezinaren errenta orokorrak direla –ziurrenik etekina sortzen dutela esan nahiko zuen–, eta PFEZaren zerga oinarritik kanpo utzi behar direla Ekonomia Itunaren 43.Bat artikulua bigarren araua aplikatzeko. Bestalde, higieziari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du horien titulartasuna ez dela erabakigarria, ondasun horietatik eskuratutako errentak baizik, eta Ekonomia Itunak ez duela jasotzen errenta horiek non eskuratu diren zehazteko lotura punturik.

Horrez gain, alegatzen du kausatzaileak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurkezten zituela PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenak, horietako ondasunen datu, errenta eta titulartasunaren konfidentzialtasuna mantenduta, bere ondarearen edukia ezkutuan mantentzeko helburuarekin; ziurrenik helburu bera izango zuen bere gaitasun ekonomikoa agerian utz zezaketen ondasunen titular gisa ez agertzeko.

12. (Izena eta abizenak 3) jaunak alegatzen du kausatzailearen ondasun edo eskubide gehienek kapital higigarria soilik sor dezaketela eta, ondorioz, ez direla kontuan hartu behar. Higieziari dagokionez, Galiziako Xuntak ez du egiaztatu kapital higiezinaren etekinik sortzen dutenik. Bestalde, Xuntak alde batera utzi du kausatzaileak bere erretiro pentsioa BBVAren Zarauzko bulego baten irekitako kontuan kobratzen zuela; datu horrek egiaztatzen du bere lanaren etekin guztiak Gipuzkoan jasotzen zirela.

13. Galiziako Xuntak aurreko alegazioei 2009ko uztailaren 1eko idatzian erantzuten die, honako argudio hauekin.

PFEZaren zerga oinarrian, alegatzen du Xuntak, sartzen dira errenta egozpenak, alegia, zergadunak bere zerga oinarrian sartu behar dituenak hiriko ondasun higiezinak gozatzeko eskubide errealaren jabea edo titularra izateagatik (administrazio horrek eragindako kalkulurako soilik hartzen dira kontuan). Katastroko Zuzendaritza Nagusiko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

datuen arabera, Galiziako ondasun higiezinaren katastro balioa 857.676,76 euro da. Vilamartin de Valdeorraseko AAA kaleko higiezinaren balioa kanpo utzita –Xuntak ulertzen du kausatzaileak han zuela ohiko egoitza–, ez lukeelako errenta egozpenik eragingo, egozpen hori kalkulatzeko kontuan hartu beharreko katastro balioa 642.793,15 euro da. Zerga oinarrian kontzeptu horregatik egotzi beharreko errenta aurreko balioaren 100eko 1,1 da, alegia, 7.070,72 euro.

Bestalde, Xuntaren arabera kausatzaileak Euskadin duen ondasun higiezin (edo bestelako) bakarra Zarauzko pisua da, eta hori 18.500.000 pezetaren (111.187,24 euro) truke erosi zen, salerosketa eskrituran ageri denaren arabera. Higiezinaren katastroko erreferentzia eta balioa aurkeztu ez direnez, nahiz eta eskatu, egozpen oinarri gisa higiezinaren balioaren 100eko 50 hartzen da kontuan Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako: 55.593,62 euro, betiere katastroko balioa baino handiagoa izango dena. 100eko 1,1eko balio hori aplikatuta, egozpena 611,53 eurokoa izango da. Ondorioz, Galizian dauden higiezinaren errentaren egozpenari dagokion zerga oinarria Euskadin daudenei dagokiena baino handiagoa da.

14. Agertutakoek kausatzailearen interes zentro nagusia non dagoenaren inguruan egindako alegazioak ikusirik, Arbitraje Batzordearen ustez, Galiziako Xuntak frogatu du zentro hori Galiziako Autonomia Erkidegoan zegoela.

Ez dira ondorio horien aurkakoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren argudioak, Xuntak egindako zerrendan ez baitira kontuan hartu kapital higigarriaren errentak eta bai, aldiz, haien titulartasuneko higiezinaren errentak. Bestalde, bistakoa da errenta horiek Ekonomia Itunaren 43.Bat artikulua bigarren arauaren arabera kalkuluan sartzeko eta horiek non lortu diren zehazteko ez dela inolako lotura punturik xedatu behar Ekonomia Itunean, ez baitira errenta horien gaineko zerga ahalmenak esleitzen, lurralde batean eta bestean eskuratutakoak alderatu soilik baizik. Ildo horretan, ez dago zalantzarik higiezinaren errentak higiezina dagoen lekuan eskuratzen direla; hori da errenta horien kokapenaren arau unibertsala.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren argudio gehigarria ulertzea ez da erraza. Ez dago argi zer esan nahi duen kausatzaileak lurralde historiko horretako foru ogasunari egindako aitortpenetako ondasunen datu, errenta eta titulartasunen “konfidentzialtasuna” aipatzen duenean, bistakoa baita konfidentzialtasun horrek ez diola zerga administrazio horri egiten erreferentzia, zerga aitortpenak bertan aurkeztu zituztelako eta beren datu fiskalak adierazi behar zituztelako eta, ondorioz, ez duelako inolako zentzurik bere ondarearen edukia “ezkutuan” mantentzeko helburua zuela esateak.

Kausatzailea bere gaitasun ekonomikoa agerian utz zezaketen ondasunen titular gisa ez agertzearen helburua hori zela esatearekin interpreta daiteke kausatzaileak Gipuzkoako Ogasunari ezkutatu lekiokela lurralde horretako beste ondasun batzuk bere titulartasunekoak direla, interes zentroa hara eramatea eragozteko. Baina hori esan nahi bazuen, xelebrea da Gipuzkoako Foru Aldundiak kausatzailearen Oinordetzen gaineko Zerga ordainarazteko duen ahalmena hark ogasunari egin ziezaiokeen iruzurrarekin defendatzea.

Kausatzaileak BBVAren Zarauzko bulego bateko kontuan jasotzen duen pentsioari (PFEZaren legearen 17.2 artikulua araberako lanaren etekinak) dagokionez, espedientean ageri dira kontu horren mugimenduak eta pentsioen ordainketak 80 kontzeptu kodearekin identifikatuta daude. Kontzeptu horren sarrerak, 2003/03/31 eta 2004/03/31 arteko aldiaren, alegia, Oinordetzen gaineko Zerga sorrarazi aurreko urtebetean, 5.179,36 euro izan ziren. Zenbateko horri Zarauzko higiezinari egotzitako –Galiziako Xuntaren arabera– errenta (611,53 euro) gehituta, Euskadin eskuratutako guztizko errenta, Ekonomia Itunaren 43.Bat artikulua bigarren araua aplikatzeko PFEZaren zerga oinarri gisa har daitekeena, 5.790,89 euro da, Galizian eskuratutakoa (7.070,72 euro) baino txikiagoa.

Beraz, ondorioztatzen da, kausatzailearen interes zentro nagusia Galiziako lurraldean zegoela eta, ondorioz, kausatzaileak ohiko egoitza lurralde horretan zuela, Vilamartin de Valdeorraseko AAA kalean. Ondorio horietarako ez dute inolako garrantzirik kausatzailearen egoitza kale horretako zein zenbakitan zegoenaren inguruko desadostasunek.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
41/2008	R19/2011	2011/07/26	Galiziako Xunta	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona fisikoen egoitza eta bizilekua

15. Zuzenbideko Bosgarren Oinarrian atera dugun ondorioak eramaten gaitu ebaztera, Ekonomia Itunaren 35.Bat.a) artikuluan xedatutako lotura puntua aplikatuta, (Izena eta abizenak 1) jaunaren heriotzaren ondorioz sorrarazitako Oinordetzen gaineko Zerga ordainaraztea Galiziako Autonomia Erkidegoari dagokiola.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Aitortzea (Izena eta abizenak 1) jaunaren (NAN:----) heriotzagatik sortutako Oinordetzen gaineko Zerga ordainarazteko eskumena Galiziako Autonomia Erkidegoak duela.

Ebazpen hau betetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak Galiziako Xuntari transferituko dio Gipuzkoako Lurralde Historikoko ogasunean aurkeztutako Oinordetzen gaineko Zergaren autolikidazioaren arabera ordaindutako zenbatekoa.